

GRAL/MALa JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOAREN BIDEZ EGITEKO ARGIBIDEAK

GRAL/MALaren EZAUGARRI OROKORRAK

Oro har, "sistema tradizionalaren" bidez egindakoekin alderatuz gero, Klinikaren bidez egindako GRAL/MAL baten ezaugarriak honako hauek dira:

1. Abiapuntua ez da tipifikazio juridiko bat (adb., delitu hau edo beste) edo gertakari baten erregulazioa (adb., familiaren eta lanaren kontziliazioa). Ezta haren jurisprudentzia edo doktrinaren analisia egitea ere. Hori, edonola ere, gero iritsiko da. "Kasu" baten hasiera da; inguruko bazterkeria kasu bat, elkartek, defentsoriek edo bulegoek, besteak beste, eman dezaketena.
2. Behin kasua aukeratuta, eraiki egin behar da. Eraikuntzaren lehen pausoa lehen pertsonako kontakizuna da (elkarrizketaren bidez), edo, hori ezinezkoa bada, zeharka egin beharko da. *Lehen esandakoak (Zuzenbidea ez dela abiapuntua, alegia) ez du eragozten dena delako pertsonak hemen prospekzio bat egitea Zuzenbidearen balorazioari buruz.*
3. Hurrengo pausoa, kontakizuna kokatu behar da botere sistemen testuinguruan (klasea, generoa, arraza, heteronormatibismoa, kapazitismoa, etab. eta/edo haien intersektzioa). Botere sistemetara erreferentzia teoriko gisa jotzeak ez du esan nahi teoria edo egile jakin batekin bat etorri behar dugunik. Kontua da honako ideia hau azalaraztea: gizabanakoei eskubideak berdintasunez erabiltzea eragozten dien taldearteko botere harremanen eta egituren menpe dago eskubide berdintasuna. Ideia horixe dago "pentsamendu kritikoaren" atzean, eta hainbat lekutatik eskuratu daiteke, hala nola irakurketak, irakasleei, aktibistei, arazoarekiko sentikorrek diren alderdietako kideei, defentsorietako langileei egindako elkarrizketak, etab. *Era berean, fase*

honetan, Zuzenbide aplikagarriari eta horri lotutako iritziei buruzko informazioa bilatu daiteke.

4. Zuzenbidearen azterketa sakonagoa. Zer dio Zuzenbideak? Zuzena da elkarrizketatutako pertsonaren balizko balorazioa? Adostasuna dago pentsamendu kritikoak adierazitakoarekin? Bazterkeriaren aurkako estrategiaren bat diseinatu daiteke? Politika publikoari lotutako iradokizunen bat?

GRAL/MALean garrantzitsua ez da “emaitza” (zalantza izan daiteke), garapen prozesua baizik:

- 1) Ez abiatu Zuzenbidetik; izan ere, horrek gizabanakoan eta haren eskubideetan oinarritutako pentsamolde eta kontzeptualizazio modu bat konfiguratzua du jada, eta, beraz, hori arrotza zaio eskubide horiek berdintasunez erabiltzeko botere sistemek baldintzatzeko duten moduari;
- 2) Ez fidatu "Zuzenbidearen inozentziaz", eskubideen berdintasuna mugatzen duten botere sistema horien produkzioan eta erreprodukzioan.

GRAL/MALaren EGITURA ORIENTAGARRIA

1. **Azala**, honako hauek adierazita: UPV/EHUren eta JSKJren logoak, lanaren izenburua, egilea, tutorea, lekua eta data.
2. **Aurkibide** zenbakitua (ataletara zuzenean sartzeko aukera emango duena).
3. **Sarrera/Aurkezpena/Justifikazioa**. Zati honetan GRAL/MALerako aukeratutako kasua aurkeztu eta justifikatzen da (zergatik kasu hori?). Edozein eratako interesak nabarmendu daitezke: pertsonalak, politikoak, etab. *Atal hau arestian aipatutako lehen ezaugarriari dagokio.*

- 4. Ikerketaren kokapen teoriko-kritikoa.** Atal honetan, kasua botere sistemen testuinguruan kokatu behar da (zer sistemari lotutako bazterkeria?). *Atal hau lehen aipatutako hirugarren ezaugarriari dagokio.* Era berean, trataera juridikoa zehaztu daiteke (lege, jurisprudenzia eta doktrina mailan), kontuan hartuta elkarrizketatutako pertsonaren iritzia, elkarteetako talde juridikoenak, etab.
- 5. Ikerketaren helburuak/hipotesiak/galderak.** Hemen zehaztu beharko da zer lortu nahi den ikerketaren bidez, zer galderari erantzun nahi zaizkien edo zer hipotesi dugun abiapuntu.
- 6. Diseinu metodologikoa.** Informazioa biltzeko eta lantzeko zer metodo eta teknika erabiltzen diren adierazi behar da, haien aukeraketa justifikatuz eta ikerketaren helburuekiko erlazioan jarrita (soziologikoa, juridikoa, etab.). Galdetegiak eranskinetan sartuko dira; ez, ordea, elkarrizketen transkribapena edo grabazioa. *Atal hau aurreko epigrafean jasotako GRAL/MALren 2. ezaugarriari dagokio.*
- 7. Informazioaren interpretazioa,** lehen adierazitako helburuekin eta hipotesiarekin erlazioan jarrita. *Atal hau GRAL/MALen 4. ezaugarriari lotuta dago.* Hemen bazterkeriaren aurkako estrategiak azaleratu behar dira; bertan, agerian jarri behar dira Zuzenbidearen mugak edo, hala behar bada, jurisprudenzia eta doktrinak haren gainean egindako interpretazioaren mugak; era berean, atal honetan, egoki iritziz gero, politika publikoetarako iradokizunak egin daitezke (politika legegileak barne hartuta).
- 8. Ondorioak.** Hemen kontua ez da emaitzen laburpen bat egitea, alderdi esanguratsuenak adieraztea baizik, baita ikuspegi teorikotik ere. Atal honetan ere gogoeta bat egin beharko litzateke, besteak beste, ikerketan aurkitutako

zailtasunei buruz, lanaren mugei buruz eta gai beraren gainean egindako ikerketetan sakonago aztertu beharko liratekeen alderdiei buruz.

9. Bibliografia

10. Eranskinak (halakorik egonez gero)

GRAL/MALaren AURKEZPEN FORMALA

Egitura alde batera utzita, gainerako ezaugarri formalak Fakultatearen webgunean eskuratu daitezkeen GRALak egiteko “estilo liburuan” aurreikusitako berberak izango dira. Hau da:

1. 25 eta 50 orrialde inguruko luzera (bibliografia eta eranskinak aintzat hartu gabe).
2. Letra tipoa eta tamaina: Times New Roman (12 pt) edo Arial (11 pt).
3. Lerroarte: 1,5.
4. Goiko, beheko eta eskuineko marjinak: 2,5 cm; ezkerreko marjina: 3,5 cm.
5. Orriaren tamaina: DIN-A 4.
6. Aipuetan eta bibliografian edozein arau formali jarraituko zaio (MLA, Harvard, APA, ISO, etab.), baina behin eredu bat aukeratuta, lan osoan mantenduko da.
7. Kontu handiz txertatuko ditugu aipuak. Erabat debekatuta dago hitzez hitzeko testu zatiak sartzea komatxo artean jarri gabe eta iturria aipatu, identifikatu eta testua zer orrialdetan dagoen adierazi gabe. Modu berean identifikatu beharko dira besteen testuetatik ateratako laburpenak edo ideiak, baina, kasu horretan, hitzez hitzezkoak ez direnez, komatxoak ez dira jarri behar. Aurreko jarraibideei kasu egin ezean, plagio bat egin dela kontsideratuko da, eta lana deskalifikatuko da.
8. Lana idazteko hizkuntza argia eta zehatza erabiltzea espero da. Horri dagokionez, Justizia Ministerioaren Hizkuntza Juridikoa Modernizatzeko

Batzordearen gomendioak aintzat hartzea gomendatzen dugu. Gomendio horien laburpena dokumentu honetan kontsulta daiteke:

<https://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2013/05/cmlj-recomendaciones.pdf>

Zehaztasun eta adibide gehiago nahi izanez gero, iturri hauetara jotzea gomendatzen dugu:

Jiménez, R. (2012). *Escribir bien es de Justicia. Técnicas de expresión escrita para juristas*. Zizur Txiki: Thomsom Reuters-Aranzadi.

Muñoz, S. (Dir.) (2017). *Libro de Estilo para la Justicia*. Madrid: RAE/CGPJ.

Euskaraz idatzitako lanentzat, estilo irizpideei jarraitzea gomendatzen dugu:

<http://azpidazki.ehu.eus/azpidazki/moduluak/htmlak/htmlak.v2.aspx?id=44&locale=eu-ES>

Gaia sakonago aztertzeko, estilo liburu hau kontsulta daiteke:

Arakama, J. M. eta beste (2005). *IVAPeko Estilo Liburua*. Gasteiz: IVAP.

GRAL/MALa BALORATZEKO IRIZPIDEAK

(GRAL tradizionaletarako modu orientagarrian "kalitate zientifiko gisa" aurreikusitakoekin **konbinatzeko** edo haiei **gehitzeko**, eta amaieraren jasotako "azalpen kalitateari" eta "eztabaida gaitasuna eta argudioen defentsari" lotutakoekiko **independentek**)

1. Helburuen, hipotesiaren edo ikerketak kasuaren bitartez erantzun nahi dituen galderen egokitasuna.
2. Ikerketaren esparru teorikoaren zehaztapena eta iturri juridikoen identifikazio egokia.

3. Koherentzia esparru teorikoaren, planteamendu metodologikoaren eta helburuen artean.
4. Jasotako informazioa aztertze eta interpretatzeko gaitasuna.
5. Azalpen ordena
6. Zehaztasun kontzeptuala eta erregistro egokitasuna.
7. Argudioak emateko ahalmena.
8. Sintesi ahalmena.
9. Aurkezpen irizpideekiko errespetua.
10. Argitasuna adierazpenean eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa.

GRADU AMAIERAKO LANA: EBALUAZIO IRIZPIDE ORIENTAGARRIAK (Fakultatearen webgunea)

KALITATE ZIENTIFIKOA.....% 30*	AZALPENEN KALITATEA% 40	EZTABAIDARAKO ETA ARGUDIOEN DEFENTSARAKO GAITASUNA.....% 30
Iturriak ezagutzen, erabiltzen, eta interpretatzen ditu	Idatzizko komunikazioa.....% 20	Argudioen identifikazioa eta sakontasuna
Erregistro kontzeptuala ezagutzen eta erabiltzen du	Idazkera zuzena, argia eta zehatza da	Arrazonamendu kritikoa
Abstrakzioarako, orokortzeko eta hipotesiak egiteko gai da	Aurkezpena eta egitura	Egoki erantzuten die epaimahaiko kideen galderari eta iruzkinei
Alternatibak sortzen eta proposamenak justifikatzen ditu	Ahozko komunikazioa.....% 20	
	Azalpena ordenatua, argia eta zehatza da	
	Jarrerak, gogoetak eta ondorioak eraginkortasunez helarazten ditu	